

**2013KO URTARRILAREN 17AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hamazazpia.

**HILABETEA:** Urtarrila.

**URTEA:** Bi mila eta hamahiru.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:**

- M<sup>a</sup> Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Iñaki Saldaña Herrero
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M<sup>a</sup> Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

## **1.- AURREKO AKTA.** 2012ko abenduaren 20ko aktaren onespena.

Ezagutzera eman ondoren 2012ko abenduaren 20ko akta, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

## **2.- AURREKONTUA:**

Alkate jaunak hitza hartu du eta 2013ko aurrekontuaren azalpena egin baino lehen, eztabaidatu eta onartzeko prozeduraren berri eman du, hau da:

- “Emendakinak aurkezteko momentua, eztabaidatzen hasi aurretik dela adierazten du.
- Hitz egiteko txanda emango da emendakinak aurkezteko, ordezkari gaxia duen taldearekin hasiz.
- Taldeei hitza emango zaie, aurkeztutako emendakinen eta Alkateak aurkeztutako aurrekontu proiektuaren gainean iritzia emateko.
- Norbaitek Aurrekontuarekiko emendakin osoa aurkezten badu, bozkatu egingo da eta onartuko balitz, Aurrekontua Alkateari itzuli beharko litzaioke, taldeekin adosteko eta beste Aurrekontu Proiektu berri bat aurkezteko.
- Bestela, emendakinak banan-banan bozkatuko dira.
- Onartzen badira, Aurrekontu Proiektuan aurreikusiko dira. Ez badira onartzen, ez.
- Bigarren aldiz, hitz egiteko txanda emango da.
- Alkateak aurkeztutako Aurrekontu Proiektua, onartutako emendakinak aurreikusiz, horrela gertatzen bada, bozkatuko da.”

Jarraian ondorengo adierazi du: “Aurrekontuak partehartzaileak izatea nahi genuen, baina ez dira izan partehartzaileek guk nahi genuen mailan. Dena dela azpimarratzen dugu urtarrilean onartzeak duen garrantzia, urtean zehar aurrera eraman ahal izateko. Esan baita ere egoera ekonomikoak baldintzatutako aurrekontuak direla.

### **1.- Ekonomi egoera**

Udalaren ogasunaren egoera ekonomikoa ona dela esan daiteke ekonomi egoera orokorra kontutan hartuz, hain zuzen ere, Udalaren aurrekontu propioan, diru-sarrera arruntek gastu arruntak eta maileguen amortizazio gastuak gaintitzen dituzte 1.853.293,81 euroko diferentziarekin eta era horretan, soberakin hori inbertsio gastuak finantzatzeko erabil daiteke, eta kreditu eragiketaren beharra saihestu da.

Horrela 1.927.594,81 euroko inbertsioak jasotzen dituen aurrekontua osatu ahal izan da, Foru Aldundiak Udal Finantzaketa Fondorako

egindako aurreikuspena jasotzeko garaian zuhurtasunez jokatzuz, eta aurreikuspen hori %5ean gutxitu izan arren.

Organismo Autonomoen ekonomi egoerari dagokionez, zerbitzu horiek sortzen dituzten baliabide ekonomikoak ez dira gastuei aurre egiteko iristen eta, horregatik, Udalaren Aurrekontutik jasotako fondoan transferentzia bidez osatzen da beharra.

## **2.- Finantza egoera**

Eskura dauden baliabideen zerga-bilketaren zalutasun eta aldizkakotasunak, gastuak puntualki ordaintzeko aukera emango dutenaren aurreikuspena egiten da; hori dela eta, urtean zehar Diruzaintzan arazo nabarmenik ez izatea espero da. Hala ere, 2009 eta 2012ko Foru Fondoan itzulketak sortuko duen baliabideen gutxipenak eragin handia izango du Udalaren altxortegian eta horrek eskatuko du diruzaintzako planak osatu eta horien jarraipen zehatza egitea.

## **3.- Ondare egoera**

Aurtengo aurrekontuan, Ondare ondasunei dagokienez, 60.000,00 euro guztira aurreikusten dira Igartzako Ondare Ondasunetan, Gurutze Gorriarentzat lokala egokitzeko 120.000,00 euroko aurreikuspena eta Lurzoruaren erosketarako 70.000,00 euro aurreikusten dira.

## **4.- Aurrekontua egiteko kontuan izandako irizpideak**

- a) Batzorde bakoitzak egin du bere aurrekontuaren proposamena.
- b) Pertsonal gastuei dagokienez, gastua mantentzeko irizpidearekin egin da aurreikuspena.
- c) 2. eta 4. kapituluetan, hau da, gastu eta transferentzia arruntetan 2012ko gastu maila mantentzeko irizpidea izan da.
- d) 3. Kapituluaren kalkulua % 0,6ko euriborra estimatuz kalkulatu da.
- e) 6. Kapituluaren herritarren onurarako beharrezkoak aurreikusten diren inbertsioak jasotzen dira.
- f) 9. Kapituluaren erakunde finantzarioak emandako maileguz amortizazioa aurreikusteaz gain, 2009ko Udal Finantzaketakarako Foru Fondoaren likidazio negatiboaren ondorioz Foru Aldundiari itzuli beharreko 595.672,00 euroak aurreikusten dira.

## **5.- Aurrekontuaren helburuak**

2013ko ekitaldiko Aurrekontuaren bitartez, Udalaren ekonomi jardueraren programa gisa, baliabideei ahalik eta etekin gehiena atera nahi zaie, gastu arrunta kontrolatuz, arrazionalizatuz eta zainduz.

Helburu orokor horren barruan baliabide arruntak inbertsiorako erabili nahi dira azpiegitura hobetzeko eta osatzeko eta administratuen ongizatea hobetzeko. Asmo horrek ez du ekarriko zerbitzu emateen maila gutxitu beharra.

## **6.- Aurrekontuaren edukia**

Ondoren zehazten dira gastu eta sarrera aipagarriak:

### **GASTUAK:**

#### **. Gastu arruntetan :**

##### **. Ondare eta Hazienda:**

Gurutze Gorriarentzat lokala alokatzea (20.000,00 euro) eta Web orriaren migrazioa (42.513,00)

Maileguen interesa: % 70eko jaitsiera. Aurreikusitako interesetipoaren arabera (% 2, 30tik %0,6ra).

Kirolaren Udal Erakundeari egiten zaion ekarpena handitu egiten da, Euskal Herriko Itzuliaren alde aurreikusten den dirulaguntzaren ondorioz eta Enplegua sortzeagatik eta birziklaketa bultzatzeko dirulaguntza aurreikusten dira ( 8.000,00 eta 28.000,00).

##### **. Gizarte Ongizate saila:**

Gastu maila, esate baterako, mantendu egiten da, nahiz eta etxe babestu, etxez-etxeko laguntza eta Kale heziketa programaren aurreikuspenak jaitzi, beste hainbat gastuena igo egin delako, hala nola, gizarte larrialdietarako gastuen aurreikuspena eta Mendekotasun handia duten haurren estimulaziorako dirulaguntzak emateko kontusail berria.

##### **. Euskara saila:**

Aldaketa aipagarriena Euskaltegiari egin beharreko ekarpenarena da, handitu egiten baita, HABEK bere ekarpena jaitzi egin duenez.

##### **. Kultura:**

Saileko gastu maila igo egin da bereziki Musika Eskolaren aldeko ekarpena handitu delako Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza gutxitu denez.

**. Parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta Hezkuntza:**

Gastu arrunta mantendu egiten da eta aldaketa nagusiak inbertsioen kapitulutik datoz.

**. Hirigintza:**

Batzorde honetako aurrekontuaren gastu arruntari dagokionez, Olarango pabiloiaren mantenimendurako 60.000,00 euro aurreikuspena, nabarmentzen da.

**. Gaztedia:**

Gastu maila igo egin da, batez ere Gazteleku eta ludoteken kudeaketarako gastu aurreikuspena handitu egin delako.

**. Antolakuntza:**

Aurrekontua gutxitu egiten da, bereziki udaltzaintzako personal laboralaren aurreikuspena eta inbertsioak gutxitzen direlako.

**. Landa ingurunea:**

Aurrekontua mantendu egiten da.

**. Zerbitzuak:**

Sail honetan gastu arrunta guztira mantendu egiten da eta aurrekontuaren %2ko igoera inbertsioen kapitulutik dator.

Aipatzekoak, Sasieta Mankomunitatearen ekarpena %5 igo da eta Kale Garbiketako aurrekontua mantendu egiten da.

**. Ingurugiroa:**

Gastu arrunta jaitsi egin da, kanpoko zerbitzuen gastu aurreikuspena gutxitu delako eta Zaborgune inkontrolatuen garbiketarako inbertsioaren gehikuntzatik dator batzordeko aurrekontuaren igoera.

**. Igartza:**

Batzordeko aurrekontua gutxitu egiten da gastu arruntari dagokionean, bereziki Igartzako koordinatzailearen kontratua etetea eta inbertsioen kapitulua ere gutxitzen delako.

**. Turismo eta merkataritza:**

Batzordeko aurrekontua %15 gutxitzen da Balentziagaren erakusketa gastuei aurre egiteko, iazko kontusaila desagertzean.

**. Inbertsioetan :**

Herritarren onurarako egokiak ikusten diren inbertsioak aurreikusten dira, eta ohikoak direnez gain ondorengoak dira aipagarrienak:

- . Gurutze Gorriarentzat lokala egokitzea: 120.000,00 €
- . Usurbe zinearen digitalizazioa: 40.000,00 €
- . Igartzako erakinak: 33.400,00 €
- . Lurzoruaren erosketa: 70.000,00 €
- . Barandiaran parkea: 250.000,00 €
- . Bidegorriaren ardatz nagusia: 275.000,00 €
- . Esteban Lasa kalea: 190.000,00
- . O.T.A.: 50.000,00 €
- . Baserri bideak: Agortatik Murumendirakoa: 73.673,00 €
- . Argiteri publikoa: ekipamenduak: 147.517,00 €
- . Kultur-etxeko teilatua: 50.000,00 €
- . Zaborgune inkontrolatuen garbiketa: 50.000,00 €

## **SARRERAK**

### **. Zerga eta Tasak:**

2013 urterako zerga eta tasetan, orokorrean, %2,4ko igoera aurreikusi da eta hau kontutan hartuz, eta 2012ko aurrekontuaren likidazioaren estimazioan oinarrituta sarrera-egoera osatu da eta ondorioz lehenengo kapitulurako (zuzeneko zergak) aurreikuspena guztira %2 igotzen da eta hirugarren kapitulurako (tasak) aurreikuspena %9 igotzen da.

Eraikuntza zergari dagokionez, ohiko lizentziengatiko dirusarrerak aurreikusteaz gain Hirigintza sailean tramitatzen ari diren espediente zehatzetatik ondorioztatuko diren sarreren aurreikuspena gehitu da.

### **. Transferentzia arruntak:**

. Transferentzia arruntan kapitulua % 2,4 igotzen da, gehien bat, Foru Fondoaren aurreikuspena, iazkoarekiko, % 3 handitu delako. Hala ere, lehen esan bezala, zuhurtasunez jokatu da eta Foru Aldundiak egindako aurreikuspena baino %5 gutxiago aurreikusten da.

### **. Ondare sarrerak:**

2012ko likidazioan onartutako eskubideak oinarri hartuta, gordailuen interesen aurreikuspena gutxitu egin da eta ondorioz, kapitulu guztiaren aurreikuspena %19 jaisten da.

**. Inbertsio errealeen besterentzea eta hirigintzako jarduerengatiko sarrerak:** ez da aurreikusten kontzeptu horiengatik, sarrerarik izango denik.

### **. Kapital transferentziak:**

Inbertsioetarako jasotzea espero diren dirulaguntzak %7,4 gutxitu dira, iazkoarekiko, eta aipagarrienak ondorengoak dira:

- Ikastetxeetan inbertsioak egiteko Jaurlaritzak ematea aurreikusten dena: 61.770,00 €
- EVEk argiteri publikoan inbertsioak egiteko: 64.000,00
- Foru Aldundiak herri bideak konpontzeko: 47.531,00

Decir para terminar que a este presupuesto se han incorporado las enmiendas realizadas por los distintos grupos y nos hubiera gustado introducir más pero por razones económicas y porque algunos grupos no han presentado nada, no se han incorporado.

Aurrekontuaren azalpena eman ondoren, Alkateak emendakinak aurkezteko hitza eman du:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “H1 alderdiak eta guk hainbat zuzenketa aurkeztuko ditugu:

1.- Adiskidetze eta bizikidetze programa bideratzea, Baketik programaren bitartez. Gure ustez normalizaziorako eta bakerako bideari, lankidetzaz eta partehartze bezalakoei indarra eman behar zaio. Eztabaida lekuak sortu behar dira eta horretarako iruditzen zaigu horrelako programa bat martxan jartzea ona litzatekeela. Lehengo urtean ere aurkeztu genuen eta aterako balitz eskaera izango litzateke onartzeaz gain, Kudeaketan guri parte hartzea uztea.

2.- Enplegurako prestakuntza. Hau lehengo urteko emendakina da. Lehengo urtean ere ildo beretik aurkeztu genuen emendakina hau, kontutan izanda, 850 pertsona daudela Beasaingo herrian langabezian. Iruditzen zaigu, gobernutik ematen diren inizatibaz gain, herrian ere sortu behar direla eta horretarako proposatzen dugu, Goierri Fundazioarekin eta Lanbiderekin, elkarlanean bi ikastaro antolatu. Lehenengoa 3. mailako prestakuntza izango litzateke, goi mailako ziklo teknikoak duten beasaindarrei zuzendutakoa. Baldintza hauek betetzen dituzten 140 gazte daude eta horrelako ikastaro bat ondo hartuko lukete. Bigarrena, 1. mailako ikastaro sanitario soziala izango litzateke, batik bat emakumeei zuzendutakoa. Beasainen 190 inguru lan eskatzaile daude egoera horretan eta garai batean Sarbidea programari esker Foru Aldundiak ikastaroak antolatzen zituen, baina orain ez ditu aurrera eramaten eta hori dela eta guk aurkeztzen dugu. Udalak lagunduta ikastaro horiek egin daitezke eta horretarako 145.000 €ko kontu-saila sortzea proposatzen dugu.

3.- Borondatezko gizarte aurreikuspen erakundeei egindako udalaren ekarpena gehitzea. Rajoy-ren Dekretuak asko mugatzen du udalaren kudeaketa eta gu ere ez gaude ados langileen soldatan egon den mozketarekin, horren aurka azaldu gara, baina ez da bakarrik soldatan eman, baizik eta borondatezko gizarte aurreikuspenen erakundeei egindako

ekarpenetan ere %90eko beherapena egin da eta onartu da eta ez dago inolako proposamenik horri buelta emateko. Iruditzen zaigu langileen eskubideen urraketa nabarmena ematen dela eta guk proposatzen dugu 57.348 €ko kontu-saila sortzea.

4.- Herriko elkarteei KPIren igoera esan nahiko lukeen gehikuntza bat egitea. Gehikuntza hori 15.000 €tan geldituko litzateke. Iruditzen zaigu elkarteek egiten duten lana herriko bizia dela eta gaur egun nahiz eta bizi dugun egoera ekonomikoak bultzatu dezaken kontu-sail hori mantentzea, nik uste dut inoiz baino gehiago gure babesa behar dutela. Hamabost milioiko aurrekontuan 15.000 €taz ari gara eta guri iruditzen zaigu diru honekin zabaldu eta mantentzen den línea interesgarria izango litzatekeela elkarte sare horrentzat eta sare horrek sortzen duen bizikidetzarako.

5.- Menpekotasun handia duten haurren estimulaziorako kontu-saila badago, baina 5.000€tan gehitzea. Hiru eta hemezortzi urte bitarteko egoera horretan dauden haurrek pastu beharreko tratamenduak oso garestiak dira eta iruditzen zaigu laguntza hori egokia izango litzatekeela. Horregatik egiten dugu proposamena.”

Alkateak, emendakinak bozkatu aurretik hitz egiteko txanda eman du, emendakinei eta aurrekontu proiektuari buruz iritzia eman ahal izateko.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “El partido socialista de Beasain no ha presentado ninguna enmienda por la sencilla razón de que previo a este Pleno se ha llegado a un acuerdo con el equipo de gobierno, en este caso con BILDU. Se han negociado unas partidas que nos llevan a aprobar estos presupuestos. Ha sido un acuerdo de diálogo, porque entre otras cosas no hemos hablado de cosas identitarias, sino de cosas reales que afectan al ciudadano de Beasain. Entre ellas, se ha acordado un plan energético municipal a tres años, que supone 415.000 €, de los cuales esperamos que el EVE subvencione una parte. Con este plan energético lo que se pretende es ahorrar un 42% en el consumo energético. Ello implica cambiar todo el sistema de luminarias de Beasain, así como reforzar la iluminación en los puntos oscuros como en los pasos de cebra, para que el ciudadano tenga una mayor protección y rebajar de manera considerable la contaminación lumínica. También hemos llegado a un acuerdo para remodelar el parque de Jose Miguel de Barandiarán que era una reivindicación del partido socialista desde la pasada legislatura. El presupuesto aproximado sería de 500.000 €, pero de carácter plurianual, esto es, en el 2013 se consignarán 250.000 € y en el 2014 otras 250.000. Se trata de un parque muy concurrido y estimamos que es necesario cubrirlo sobre todo para días desapacibles como los que hemos tenido. Creemos que es necesario para Beasain, no hay más que ver el uso que se hace del parque situado en las Pérgolas. Se crea, a su vez, una partida de 20.000 € para cambiar la brandilla de la calle Esteban Lasa, que está



bastante deteriorada. Esta es una vieja reivindicación de los vecinos, y nosotros lo llevamos pidiendo hace ocho años, y esta vez se ha aceptado. Se ha desbloqueado un tema que estaba bastante enconado, que es el de la Beasaingo Ikastola. Tiene una necesidad de ampliación, porque se lo han trabajado, y tiene una demanda. Eso conlleva que la propia Ikastola cubra sus necesidades supeditado a un acuerdo con la Cruz Roja, en el sentido de que se traslade a otros locales y puedan desarrollar su labor humanitaria y social. Existe una partida de compra de suelo, como todos los años, aunque luego por los tiempos que corren, no se ejecuta.

Hablamos de partidas de carácter plurianual porque en estos momentos no existe dinero suficiente y por ello se acuerda hacerlo de esa manera. Todo esto, insisto, ha sido una negociación larga, de muchas reuniones, pero en un tono cordial y bajando a ras de suelo y acordando aquello que es interesante y que necesitan los ciudadanos de Beasain. Parece ser que cuando alguien acuerda unos presupuestos, son magníficos, o por lo menos viables, y sin embargo, cuando otros pactamos es un cambio de cromos. Nuestro voto va a ser favorable a este presupuesto, pero es que no nos hemos inventado nada, porque está en nuestro programa a las elecciones de mayo de 2011.”

Alkate jaunak (BILDU): “Nik azalduko dut emendakinen aurrean izango digun jarrera. Bost emendakin horietatik hoiru bagenekien, baina beste bi emendakinak harridura sortu digute, zeren eta urtarrilaren hasierako eta aste honetan bertan aurkezteko eskatu genituenean, ez ziren aurkeztu.

Guk emendakinei ezezko botoa emango diegu eta batik bat bi gauza azpimarratu nahiko nituzke. Murrizketari buruz esan, guk aurreko plenoan, langileak bertan izan zirenean, esan genuen guk langileen eskubideak errespetatzearen alde gaudela eta gure ustetan horretan ari garela. Guk orain arteko murrizketak, poltsa batean gordetzea proposatu genuen eta ahal denean ordaintzea. Elkarreei KPI igotzeari buruz esan, erabat ados gaudela esaten duzuenarekin, hau da, beraiek direla herria bizi mantentzen dutenak, baina uste dugu ez dela garaia beste partida guztiak mantendu ditugunean, elkarreana igotzea. Elkarrekin ere bilera bat egin genuen eta beraiek esan ziguten hitzarmena mantentzearekin konforme gelditzen zirela, esfortzu handia egiten ari garelako.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, emendakinak bozkatu dira:

#### Lehenengo emendakina

Aldeko botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino txikiagoa denez, ez da onartu.

#### Bigarren emendakina

Aldeko botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino txikiagoa denez, ez da onartu.

#### Hirugarren emendakina

Aldeko botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino txikiagoa denez, ez da onartu.

#### Laugarren emendakina

Aldeko botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino txikiagoa denez, ez da onartu.

#### Bosgarren emendakina

Aldeko botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino txikiagoa denez, ez da onartu.

Alkate jaunak (BILDU): "Azkeneko erronda egingo dugu, norbaitek aurrekontu proiektuari zerbait esan nahi badu.

Julio Herreros jaunak (PP): "Se presentan estos presupuestos del Ayuntamiento con un aumento del 2,33%, cuando deberían de ser de disminución por el momento que estamos pasando. El gasto corriente baja un 1,6% y este resultado es bueno. El nivel de endeudamiento es del 3,86% , que en los tiempos en los que estamos, es un buen nivel. El tema de inversiones, ha aumentado un 30%, pero echo en falta que no se haya ejecutado la implantación del "chip", en el quinto contenedor, el desarrollo del ámbito de Errekarte, con un retraso en la antigüedad de los caseríos que no era cierta.

Los promotores están a la espera de que este Gobierno los conceda la licencia. Carencia en la promoción económica y el apoyo al aprendizaje empresarial, fomentar la competitividad del territorio, recuperar la colaboración público-privada y la compra de terrenos por parte de este Gobierno para la construcción de viviendas sociales y de alquiler.

Este gobierno municipal sigue manteniendo la partida de 10.000 € para el transporte a familiares de presos terroristas de ETA. Con la crisis que estamos padeciendo, no se debe de utilizar dinero público para temas partidistas. Con todo esto estáis demostrando que no sois demócratas aunque el Tribunal Constitucional os legalizara, engañándolo con las listas blancas, porque seguís siendo un partido que sólo persiste en demostrar una carencia de valores éticos y morales. Os negáis a reconocer vuestra responsabilidad en el enorme sufrimiento causado a esta sociedad.

“Mi voto va ser en contra de estos presupuestos”

Josi Insausti jaunak (H1): “Nik 2013ko aurrekontuaren balorazio orokorra egin nahi nuke. 2012ko aurrekontuari baiezko botoa eman nion, batez ere bi arrazoiengatik, una por mantener una posición proactiva y con la confianza de que los acuerdos que se iban tomando en el pleno y en las distintas comisiones de este Ayuntamiento se irían ejecutando, y otra porque se incorporaron en el presupuesto algunas partidas propuestas por nosotros.

Primero, voy a ir analizando el nivel de ejecución de algunas de las partidas propuestas por nosotros, tales como el parque de Arana, las escalera de Artzaienea o el estudio e informe sobre la accesibilidad en el municipio, teniendo en cuenta, sobre todo, los barrios más altos. Tengo que decir que principalmente las partidas del parque de Arana y de las escaleras de Artzaienea, se empezaron a ejecutar hace unos meses, pero ahí quedaron. Empezar sí, pero acabar, no. Esto me lleva a pensar que falta planificación para que lo que se empieza se termine. Con el tema de la accesibilidad, he tenido conocimiento de que el estudio, estar esta, pero poco más hemos sabido. Si hubiéramos tenido conocimiento de ese estudio, posiblemente entre todos hubiéramos tenido la capacidad para fijar prioridades y hacer las inversiones correspondientes e incluso alguna de ellas poder plasmarla en el presupuesto de 2012, porque el tema de la accesibilidad para mí es muy importante y para el resto de grupos también. Sería necesario adoptar créditos de compromiso para poder ir materializando lo que se precise en materia de accesibilidad.

En su momento dije que tenía confianza en que las cosas cambiaran respecto al segundo semestre del 2011, sobre la ejecución de acuerdos adoptados, pero parece que en vez de ir mejorando, retrocedemos. Me parece triste el que la suma de las mayorías no se tenga en cuenta o se tenga en cuenta sólo para lo que guste en cada momento. Al Alcalde le tengo que

recordar que es el Alcalde de todos y que tiene que ejecutar aquello que se acuerda. Hay muchas cosas que quedan por ejecutar y tengo la duda de si algún día verán la luz porque no son del agrado de BILDU. Esto es un sonsonete que tenemos un día sí y otro también. Yo sí pediría que cambie la forma de proceder en cuanto a los acuerdos que se adopten por mayoría, porque, primero, la mayoría merece un respeto, y segundo, porque lo que está acordado hay que llevarlo adelante.

Antes el Alcalde ha comentado que se ha dado la posibilidad a todos los grupos para presentar enmiendas a este presupuesto. Yo tengo que decir que se pueden presentar todas las enmiendas que se quieran y recogerlas también, porque el papel lo soporta todo, pero luego está la gestión del instrumento que hoy se va a aprobar. En este sentido podemos analizar cómo se ha ejecutado el presupuesto que del 2012, yo he hecho referencia a algunas partidas pero hay muchas más. Pero lo que yo os pedí es que se estableciera un cronograma para la ejecución de los acuerdos que se han adoptado en este Ayuntamiento y lo que recibí fue el silencio por respuesta. Entiendo que las mayorías ya las estabais elaborando y poco os importaba ese cronograma, pero yo entiendo que lo acordado hay que ejecutarlo.

Entrando en el presupuesto de este ejercicio, esan duzue parte hartzea ez dela izan zuek nahi adina, baina uste dut elkarte batzuk parte hartu dutela. Ez dakidana da herritarrek parte hartu dute eta ekarpenik egin duten eta horiek jaso diren, zeren eta ez badira jaso esan egin beharko da zergatik izan den. Beste parte hartze prozesu batzuk ere izan dira udaletxe honetan urtean zehar, eta batzuetan ondorioak ere atera dira eta ez dakit aurrekontu hauetan islatu diren.

Lo que si tengo que decir que los criterios que habéis establecido en las distintas partidas, son contradictorios y en algunos casos discriminatorios. En el capítulo II, según sean el tipo de servicios que presten las empresas se asumen el IVA, y en otros no. Por ejemplo, el sobre costo que ha supuesto el tema del IVA en el servicio de limpieza, como la facturación es importante, no se asume y en contratos de menor entidad, si se asume. No entiendo cuál es el criterio que habéis utilizado.

En el tema de la iluminación, planteáis una inversión importante para el ahorro energético, pero por otro lado sigue existiendo una partida muy importante para mantenimiento de 67.000 €. Hay algo que no me cuadra, es decir, si se va a ir haciendo una inversión importante para el alumbrado del municipio, cómo se puede seguir manteniendo una cantidad tan importante para el mantenimiento. Tendría que ir minorando, pero bueno, no hay correlación entre el capítulo VI y capítulo II.

Cruz Roja. No quiero que se haga una interpretación torticera sobre lo que voy a decir en relación a la Ikastola. Cuando vinieron por primera vez a

plantear la necesidad de ampliación, estaba el tema de la Cruz Roja. En la última comisión, si mal no recuerdo, en cuanto al alquiler (20.000 €), se comentó que se iba a intentar negociar esta cantidad para que fuera menor. No sé si se ha negociado, y en qué cantidad se está en este momento, porque la partida sigue estando en 20.000 €. A diez que se quiere mantener el acuerdo, pues al Ayuntamiento de Beasain le supone unos 300.000 €, incluyendo actualizaciones e IVA. Os hice la pregunta de si se han valorado otras alternativas, al objeto de encontrar una solución satisfactoria para ambas partes, porque una cosa es la ampliación, pero otra el costo que le supone al Ayuntamiento, a corto, medio o largo plazo. Si la Ikastola incrementa más de lo previsto el número de matrículas, la solución que se está dando no sé si es la correcta. Yo creo en todo caso que la solución no tiene que ser a tan largo plazo.

Me ha causado sorpresa que hayan desaparecido dos partidas, en concreto, Udalbide y Udalbiltza. Cuando el año pasado planteé suprimir esas dos partidas y destinar ese dinero a asociaciones y grupos culturales y deportivos, parece que estaba cometiendo una herejía. Mi pregunta es qué ha pasado de un año a esta parte para que no haya ningún problema en retirar ambas partidas. Es algo sobre lo que yo no tengo conocimiento. O bien la defensa identitaria ya no tiene razón de ser, o por el contrario es el peaje que se ha tenido que pagar para llegar al acuerdo para la aprobación de este presupuesto.

Badirudi esandako guztiarekin ezezko botoa eman behar dudala, baina abstenitu egingo naiz, porque quiero seguir manteniendo la esperanza, y espero que ésta no sea inocente, de que se vayan a respetar las mayorías, se ejecuten los acuerdos. Espero dut 2014ko aurrekontuak aurkezten direnean gauza bera ez esan beharra izatea. Esperantza omen da azkena galtzen den gauza eta nik hori espero dut.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Aurrekontuari begiratzerakoan eta partida batzuk adostu edo ez adostu, horren gainera lehenetsuna du akordioak nola hartzen diren, nola betetzen diren eta zein borondate dagoen hartutako akordio horien erantzukizunean. 2012. Aurrekontuari ematen diogun errebasoa ez da batere baikorra, hartutako erabaki batzuei bizkarra eman zaielako. Gogoratu nahi dut 2011ko iraileko hirigintza batzordean lehen okupaziorako lizentziaren tasari buruz, teknikoak beraiek aurkeztutako proposamena jarri zela mahai gainean eta handik bi hilabetera esan zitzaigun denbora gutxi zela aztertze eta denbora emateko. Gaur oraindik, ez dago erantzunik. Zer esan Errekarteko garapenari buruz. Gehiengo batek buruan duena garapen horri begira, zer den jakinik, nola bizkarra ematen zaion. Berdin gertatzen da, amianto dela eta, martxoan hartu zen erabaki bat, hau da, udalerrian uralita zuten teilatuen inventario bat egiteari buruzkoa. Gaur arte. Zer esanik ez, Ezkiaga auzoan komun publikoa dela eta BILDUK izan zuen jokaera, guk egindako

proposamenari bizkarra eman ez eta bizkarra emateaz gain, egindako proposamenari ez erantzutearekin. Agortatik Murumendi mendira doan bidearekin beste hainbeste. Martxoan esan zitzaigun bukatu zegoela eta orain berriro 75.000 € kontu saila jartzen da mahai gainean, berriro ere horrekin jarraitzeko, nahiz eta guk bere garaian salatu egindakoa txapuza bat zela. Berdin gertatu da Arana kalea eta Esteban Lasa kalean egin beharreko aldaketekin. Parte-hartze prozesu bat irekitzeko eskatu zen. Guk Arana kaleko lanak babesten ba genituen ere, esan genuen autoak aparkatzeko kentzea ez genuela ikusten eta jakin nahi genuela horren iritzia. Baiezkoa esan zitzaigun eta hori ere gaur arte. Zaborren inguruan otsailetik gabiltza dantzan. Badirudi "chip-ak" erosi direla eta ea lehenbailehen jartzen diren. Dirulaguntza bat onartu zen urriko Osoko Bilkuran eta esan zen zerrendatu egin behar zela 5. edukinontzia zeintzuk erabili nahi zuten dirulaguntza emateko eta pentsatzen da Sasietan lan bat egin behar dela jendea sentsibilizatzeko eta ez daukagu horren berririk.

También quisiera recordar aquellas partidas que no se han ejecutado, tales como, el ascensor de Jose Miguel Iturrioz a Juan XXIII, con cargo al presupuesto de 2011. El WC de Ezkiaga. Compra de suelo por valor de 100.000 €. La renovación de aceras, con un presupuesto de 237.000 €, se han ejecutado 110.000. El parking de Igartza Oleta no se ha ejecutado, las infraestructuras para huertas ecológicas tampoco, el acondicionamiento de la biblioteca tampoco, el parque para mayores en Paseo del Oria tampoco, la limpieza y tratamiento del suelo de debajo de la plaza tampoco.

Sin embargo, no sólo hay que mirar hacia atrás, sino también hacia adelante, y aunque se nos ha dado la posibilidad de aportar nuestra visión de los presupuestos para el 2013, ha habido partidas como la bonificación de las licencias de actividad y construcción para la generación de empleo, que se han aprobado o están en marcha. Parece ser que hay voluntad para adquisición y acondicionamiento de locales para la EPA, para implantar un sistema de Wifi en el polideportivo Antzizar, y para eliminar el pabellón prefabricado de la plaza de Errekarte y hacer un estudio de usos y mejora de la misma. Con todo, ha habido enmiendas que teníamos intención de sacar y no ha podido ser.

De todas formas, haciendo un repaso de los presupuestos de 2013, lo que si quería decir es que desde nuestro punto de vista no hay aportaciones en temas tan importantes como vivienda o bienestar social, en euskera...Nos preocupa la escasa sensibilidad del Gobierno para impulsar la formación y el empleo, cuando en Beasain tenemos 850 personas desempleadas. Nos preocupa que desde el departamento de bienestar social no se inicien actuaciones para atender a personas en situaciones límite a causa del paro. Que en temas de participación, no se propongan temas para tener en cuenta la pacificación, reconciliación y convivencia de la ciudadanía. Nos preocupa también la falta de acuerdos firmes para activar desarrollos urbanísticos como

Errekarte y Olanan, que pueden generar empleo, ofrecer viviendas de protección oficial y libres a precio razonable y además aportar ingresos a las arcas municipales. Además en este caso, que hay promotores que están dispuestos a arriesgarse.

Decir que si hacemos una comparativa con años anteriores, en los que a nuestro partido, PNV, le ha tocado definir y gestionar los presupuestos junto con EB o con EA, estos presupuestos que oído por ahí que son socialistas, nos parecen un calco de anteriores legislaturas. Lo que sí es de reseñar que comparando con el presupuesto del año pasado, el único que ha tenido un incremento bestial, ha sido el presupuesto de urbanismo, un 60% de subida. Sin embargo, se dejan de lado 15.000 € para las asociaciones..., los hechos hablan por sí solos. Se plantean enmiendas sociales e iniciativas que no se apoyan, pero allá cada uno. Decir que es curioso que desde 2004, sea la primera vez que desaparecen del presupuesto Udalbide, Udalbiltza. No sé si hace falta explicar por qué hemos defendido desde el 2003, el concepto de que los vínculos de territorialidad de Euskal Herria se construyen con formaciones de este tipo. El que desaparezcan nos parece curioso. En 2005, el Gobierno de Zapatero recurrió el acuerdo de este Ayuntamiento y decía que “los fines y actividades son de carácter esencialmente político”. Entre dichos figuran, el de proyectar en el ámbito internacional la existencia de Euskal Herria como nación propia y diferenciada, así como su voluntad de actuar como tal en el futuro. Lo que no consiguió Zapatero con un Decreto, una barandilla y un parque lo han conseguido.

Hala eta guztiz ere bakoitzak bere bidean jarraituko dugu. Guk gure ekarpenak egin ditugu. Batzuk onartu dira eta beste batzuk ez, baina ez dugu gure burua ikusten aurrekontua oztotatzeko modukoa eta gure jarrera ere abstentzioarena izango da.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Nik esandakoei nire erantzuna emango diet. II. Kapituluako gastuei dagokionez, KPI eta BEZren igoera horiei buruz esan, BEZren igoera beti asumitu beharra izan da eta egia dena da gastu handienak dienak mantentzen saiatu garela, baino hori egin dugu uste dugulako margen gehiago dagoela, bolumen handiagoa dagoenetan kudeatu eta kontrolatzeko. Argiteriaren mantenu gastuak jaisteari buruz esan, zerbait jaitsiko delakoan gaude, baina honek prozesu bat dakar eta iruditzen zaigu hori gauzatzen den bitartean eta bost mila, hamar mila euroen gora behera ez dela oso larria. Amiantoaren inguruko ikerketak, Gu sartu aurretik mahai gainean zeuden eta egia da gauzatu behar dela eta gauzatu nahiko genuke, baina gauzatzekotan ondo egin behar da eta ez lehenago zegoen moduan. Benetan jakin behar da amiantoa non dagoen eta zein konstruktorearekin hitz egin behar den. Diru kantitate handia gastatu behar da gauzak ondo egiteko. Lehenago zegoen proiektuarekin, dirua basura botatzea besterik ez genuke egingo. Agorta-Murumendi bide-proiektua. Ez nago batere ados esaten denean egin den bidea

txapuza bat dela. Nik uste dut nahiko ondo dagoela, dagoen tokian egoteko eta esan behar da proiektu ezberdina dela, orain arte egin dena eta ondoren egingo dena eta dirulaguntza garrantzitsu bati lotuta dago. Zaborren inguruan esan, onartu zela hobaria ematea eta aurrekontuetan ere aurreikusi da 28.000 €ko dirulaguntza birziklatzen duenarentzat. Sasietako teknikariekin hitz egiten ari gara aztertzeko eta gauzak behar diren moduan egiteko. “Chip-aren detektoreak ailegatu dira eta Sasietatik esan digute lehenbailehen jarriko direla. Udalbide-udalbiltza. Ez da peaje bat. Aportazio ekonomika garrantzitsua izan daiteke, baina horrezaz gain lan asko egiteko asmoan daude eta zinegotziok hasita bertako partaide izatetik, lan handia daukagu egiteko. Ez da Alfonsok lehen esan duen bezala, kromo aldaketa, baizik eta mahaian eseri, bi alderdiek interesa eduki adostasunetara iristeko, denbora pasa, orduak sartu eta hitza egin. Bi alderdien aldetik hitz egiteko situazio ona bilatu ezkerro, ikusten da adostasunetara iritsi daitekeela.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, Alkatea jaunak proposamenaren berri eman du, hau da:

*“Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko, 21/2003 Foru Arauaren 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetza honek 2013 urterako Aurrekontu Orokorra osatu du. Hori dela eta, Kontuhartzaitzaren txostena eta Hazienda Batzordearen irizpenaren ondoren, Udalbatzaren onespenerako aurkezten da ondorengo akordio proposamena:*

*Lehenik.- 15.136.894,96 euroko 2013 urterako Aurrekontu Orokorren espedientea onartzea, ondorengoek osatzen dutena:*

- |   |                        |
|---|------------------------|
| - <i>Udalaren aurrekontu propioa:<br/>Presupuesto propio del Ayuntamiento</i>   | <i>13.849.463,80 €</i> |
| - <i>Beasain Lantzen, S.A.ren aurrekontua:<br/>Presupuesto de Beasain Lantzen, S.A.</i>                               | <i>738.404,40 €</i>    |
| - <i>Fundazioa: Udal Kirolaren Erakundeko aurrekontua:<br/>Presupuesto Fundación: Instituto Municipal del Deporte</i> | <i>532.573,94 €</i>    |
| - <i>Beasaingo Loinatz Musika Eskolako aurrekontua:<br/>Presupuesto Beasaingo Loinatz Musika Eskola</i>               | <i>587.543,27 €</i>    |
| - <i>Beasaingo Udal Euskaltegiko aurrekontua:<br/>Presupuesto Beasaingo Udal Euskaltegia</i>                          | <i>387.534,00 €</i>    |
| - <i>Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua<br/>Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria</i>                            |                        |



*Bigarren.- 15 egun Jendurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betirako onartutzat emango da. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du dagokiona ebazteko.”*

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak:1 (PP)

Abstentzioak: 7 (EAJ, H1)

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua handiagoa denez, gehiengo absolutuarekin onartu da 2013. urterako Aurrekontu Orokorra.

**3.- PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.** Beasaingo Udalaren eta Organismo Autonomoen plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea.

Alkatea jaunak, Antolakuntza Batzordearen proposamenaren berri eman da:

*“AURREKARIAK*

*1.- 2013. ekitaldi ekonomikorako aurrekontu proiektua dela eta, Beasaingo Udaleko eta bere organismo autonomoetako plantila eta Lanpostuen Zerrendak eratu dira 2013. urterako.*

*2.- Eratu diren dokumentuek antzekotasun handia dute, plaza eta lanpostuen izenei eta kopuruei dagokionez, 2012. ekitaldi ekonomikorako eratu zirenekin; baina hala ere, aipatu beharra dago, dagozkion zuzenketak egin direla Musika Eskola eta Euskaltegiko plaza batzuen inguruan, gaur egun epaien bidez izendatuta dauden “finko ez jarraia” edo “ez jarrai mugagabea” izeneko langileak betetzen dituzten plazak hutsik daudela adierazten bait da.*

**OINARRI JURIDIKOAK**

*Aplikagarria den legedia ondorengo legetan dago bilduta:*

- *Apirilaren 12ko 7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen dena (34. eta 37.c artikulua)*
- *Erregimen Lokaleko Testu Bateratua ( 126,1 artikulua)*
- *Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretua ( 2f art.)*
- *Erregimen Lokaleko oinarrien Lege arautzailea (70,2 eta 22,2i artikulua).*

*Hau guztia ikusirik, eta ezaguturik, 2013ko urtarrilaren 2an, Pertsonal Teknikariak emandako txostena, Udai Antolakuntzako Batzordeak, Udaleko Osoko Batzarrera eramaten du ondorengo AKORDIO PROPOSAMENA:*

*Lehenik. Udaleko eta bere erakunde autonomoetako 2013. urterako pertsonal funtzionario eta laboralaren plantilari haserako onespena ematea, Akordio honi atxikita*

doan eranskinean azaltzen denez, bertan daude bakoitzaren izenak eta oinarrizko ezaugarriak, lanpostu horiek burutzeko eskatutako baldintzak, zein taldetakoak diren, atxikita dauden eskalak, hornitzeko erak, destinu osagarriaren mailak eta lanpostu bakoitzari izendatutako osagarri espezifikoak ( tramu orokorra eta dedikazio bereziko tramua). Modu honetara, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 74. artikuluko eta Erregimen Lokaleko Oinarrien Lege arautzaileko 90.2 artikuluko arauak betetzat jotzen dira edukiari dagokionez, zerbitzuen behararen arabera, pertsonalaren ordenatzearen inguruan.

Bigarrena.- Publikoari erakustea hamabost egunez, Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik, erreklamazioak egiteko aukera egon dadin.

Hirugarrena.- Behin betiko onartzen denean, honen kopia bidaltzea Estatuko eta Komunitate Erkidegoko Administrazioari, eta argitaratzea Probintziako Aldizkari Ofizialean, bere ezagupenerako eta indarrean sartzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

**4.- ASIGNAZIOAK.** Talde politikoaren ordainsariak eta korporazioko kideen asistentziak eguneratzea.

Alkateak proposamenaren berri eman du:

#### “AURREKARIAK

1.-2011ko urriaren 6an Udalbatza osoak egindako bileran, aho batez, talde politikoaren ordainsariak eta korporazioko kideen asistentzietan buruzko erabakia hartu zuen. Akordio honek, ondorengo xedatzen duen: “A eta B atalen egunerokotasuna, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren urteen arteko KPlaren arabera egingo da, urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin”.

2.- 2012 urtean zehar sortutako ordainsari eta asistentziak, hartutako akordioaren arabera, haiek eguneratu ondoren, ordaindu dira.

3.- Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurriak buruzko, abenduaren 30eko, 20/2011 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udaleko langileen lansariak ez dute igotzerik izan 2011ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Hau guztia ikusirik, Hazienda Batzordeak Udalbatzari egiten dio ondorengo

AKORDIO PROPOSAMENA

*Talde politikoen ordainsariak eta korporazioko kideen asistentziei buruzko erabakia aldatzea, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, ondorengoa xedatuz:  
“Eguneratzea, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren urteen arteko KPlaren arabera egingo da, urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, baldin eta, personal funtzionario eta laboralaren ordainsariak, ere, eguneratzen badira”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

**5.- BAREMOA.** Udal kiroldegian zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifetan eta udal tasetan dirulaguntzak ematea.

Alkate jaunak, gizarte-ongizateko proposamenaren berri eman du:

*“Gizarte-Ongizate batzordeak 2013ko urtarrilaren 9an egindako bileran, Udal kiroldegiaren zerbitzuen erabilpenagatik tarifak eta udal tasen arloan laguntzak emateko ordenantza dela eta, ondorengo proposamena aurkeztea erabaki du:*

*.- 2012. urtean ur, zabor eta estolderi kontzeptuengatik ordaindutako ordainagirietako kopuruak berreskuratzeko eta 2013. urtean Udal kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeko laguntzak emateko kontutan hartuko diren diru-sarrereren baremoa ondorengoa izatea:*

*Hileko 641,40 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.*

*Hileko 641,41 eurotik 801,75 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %75 lortzeko.*

*Hileko 801,76 eurotik 962,10 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %50 lortzeko.*

*Laguntza eskatutako tasei eta tarifei dagozkien ekitaldi ekonomikoan zehar izandako diru-sarrerak zenbatuko dira.*

*Aipatutako proposamena Udalbatzak onartzea eskatzen da.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

## **6.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK:**

- a- Garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzak proiektuak.
- b- Beasaingo gazte laguntzaileentzat bekak.
- c- Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak.
- d- Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programak.

Alkatea jaunak (BILDU), aipatutako oinarriak onartzeko proposamenen berri eman du.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

**7.- ORDEZKARIAK IZENDATZEA.** Enirio Aralarko Mankomunitatean eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioan.

Alkatea jaunak (BILDU), proposamenaren berri eman du:

**“Gaiak: ordezkariak izendatzea.**

#### **AURREKARIAK**

*1.- 2011ko urriaren 6an Udalbatza Osoak egindako bileran, Gipuzkoako Ur Kontsortzioan Beasaingo Udalaren ordezkari titular eta ordezkoak izendatu zituen hurrenez hurren, Aitor Larburu Izagirre jauna eta Unai Baztarrika Otegi jauna.*

*2.- Udalbatza horretan bertan, Enirio Aralarko Mankomunitatean Udalaren ordezkari titular eta ordezkoak izendatu ziren hurrenez hurren, Unai Baztarrika Otegi jauna eta Enkarni Arrieta Telleria andrea.*

*3.- 2012ko urriaren 11ko batzaraldian, Unai Baztarrika jaunak aurkeztutako zinegotzi karguaren errenuntzia onartu zen eta 2012ko abenduaren 20ko batzaraldina, Garbiñe Zurutuza Fernández andreak zinegotzi karguaren jabetza hartu zuen.*

*Horren ondorioz, Alkatea naizen honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten diot:*

**Lehenik.** GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAN, Beasaingo Udalaren ordezkari ordezkoa, **GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ** andrea izendatzea.

**Bigarren.** ENIRIO ARALAR MANKOMUNITATEAN, Beasaingo Udalaren ordezkari titularra, **KOLDO AGIRRE MUJIKA** jauna izendatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

**8.- UDAL ENERGI PLANA.** Plana eta urte anitzeko gastua onartzea.

Alkatea jaunak (BILDU), proposamenaren berri eman du:

### **“AURREKARIAK**

*Beasaingo Udala bereziki kezkatu da azken 20 urte hauetan argiteria publikoa jartzean energia aurrezteari dagokionez. Hala, koadroen %60ak energia aurrezteko sistema bat baitaratzen du, fluxu-erreguladore edo maila bikoitzeko linea baten bidez. Halaber, azken urteetan argi-kutsaduraren gaineko esku-hartzeak burutu dira eta efizienteak ez ziren luminariak aldatu egin dira sistema modernoekin. Esate baterako, led teknologia jarri da. Modu horretan, jardun den lekuetan potentzia nabarmen jaistea lortu da.*

*2008. urtean energia-efizientziaren 1890/2008 araudia atera eta 2009ko apirilaren 1ean indarrean sartu ostean, energia aurrezteko sentsibilitatea derrigorrezko bilakatu da.*

*2010. urtean Beasaingo udalerrian energiaren inguruko auditoria bat burutu zen, Consultoría Lumínica kontratatuz. Azterketa sakon baten ondotik eta auditoria horretan aurrezpenari dagokionez aurreikusten ziren emaitzen ondorioz (argi-mailak asko murriztuz), 2011n bigarren auditoria burutzea erabaki zen, kasu horretan Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) burutzekoa. Horri esker, emaitzak erkatu dira eta egoerari buruzko iritzi argiagoa osatu ahal izan da “jarraitu beharreko bidea” zehazteko.*

### **1.- ARGITERI PUBLIKORAKO UDAL ENERGI PLANA (UEP)**

*Egiteko aldia hiru urtekoa da eta markatzen den helburua da, %42tako instalazioaren kontsumo energetikoa jaistea; 2012ko 1.380.000 kWh-etatik 800.000 kWh-etara, aurreikusitako ekintzak egin ondoren.*

*Egingo diren ekintzetarako aurrekontua 415.000 € da, jarraitzen duen bezala banatuta.*

*2013. urtea: 147.517,53 €*

*2014. urtea: 152.751,51 €*

2015. urtea: 114.784,23 €

### 2013. URTEA

<u>Concepto</u>	<u>Ale</u>	<u>Unitario</u>	<u>Zenbateko</u> <u>a</u>
Proyecto reguladores de flujo	3	7.038,15	21.114,45
Instalación de reguladores recuperados	3	250,00	750,00
Equipo electromagnético de DN	42	105,00	4.410,00
Proyecto reducción de potencia en lámparas	391	71,46	27.940,86
Luminarias nuevas LED 36/48W	97	450,00	43.650,00
Luminarias nuevas LED 72W	37	650,00	24.050,00
		<b>BATUKETA</b>	<b>121.915,31</b>
		21% BEZ	25.602,22
		<b>GUZTIRA</b>	<b>147.517,53</b>

### 2014. URTEA

<u>Concepto</u>	<u>Ale</u>	<u>Unitario</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Reguladores de flujo nuevo	4	6.908,23	27.632,92
Instalación de reguladores recuperados	2	250,00	500,00

<i>Equipo electromagnético de DN</i>	8	105,00	840,00
<i>Cambios de equipo y lámpara</i>	356	78,00	27.768,00
<i>Luminarias nuevas LED 36/48W</i>	114	450,00	51.300,00
<i>Luminarias nuevas LED 72W</i>	28	650,00	18.200,00
		<b>BATUKETA</b>	<b>126.240,92</b>
		21% BEZ	26.510,59
		<b>GUZTIRA</b>	<b>152.751,51</b>

#### **2015. URTEA**

<u>Concepto</u>	<u>Ale</u>	<u>Unitario</u>	<u>Zenbatekoa</u>
<i>Instalación de reguladores recuperados</i>	1	250,00	250,00
<i>Equipo electromagnético de DN</i>	75	105,00	7.875,00
<i>Cambios de equipo y lámpara</i>	346	78,00	26.988,00
<i>Luminarias nuevas LED 36/48W</i>	101	450,00	45.450,00
<i>Luminarias nuevas LED 72W</i>	22	650,00	14.300,00
		<b>BATUKETA</b>	<b>94.863,00</b>
		21% BEZ	19.921,23
		<b>GUZTIRA</b>	<b>114.784,23</b>

*Beraz, Zerbitzuak, Landa Ingurunea eta Ingurumena Batzordea ondorengoaren*  
**ALDEKO AZALTZEN DA:**

**LEHENA:** *Onartzea Argiteri Publikorako Udal Energi Plana (UEP) eta bertan azaltzen diren ekintz multzoa*

**BIGARRENA:** *Onartzea planak iraungo duen urte bakoitzerako dagozkion inbertsioak, ondorengo zenbakien arabera:*

2013. urtea: 147.517,53 €

2014. urtea: 152.751,51 €

2015. urtea: 114.784,23 €

**HIRUGARRENA:** *Aurreko puntuetan azaldutakoa bere berrespenerako organo betearazle eskudunari helaraztea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guri, batzordean ere esan genuen, proposamen hau zuhurtzi falta iruditzen zaigu eta ez proposamenaren aurka gaudelako, baizik eta alde gaude, urteak daramatzalako udal honek energia planari jarraikiz, kilowatio orduko aurrezte bat emanez. Hala ere esan behar da udal energi plan honek hiru linea markatzen dituela, hau da: flujoa bera erregulatzea, potentziaren jaitsiera lanparak aldatuz eta azkena leds sistema berriak jartzea. Lehenengo eta bigarren linean aktuatzen bada, 176.000 € inbertituta 43.000 € aurrezte lortzen da. Hori beti paperak dioena. Bigarren linean aktuatzen bada, 240.000 € inbertituta, 25.000 € aurrezten dira. Hirugarrena, leds lanparak aldatzea da. Urteen poderioz, teknologiak berak izan dezakeen aurrerapena kontutan izan da, gaurtik hasia..., iruditzen zaitu zuhurragoa dela lehenengo bi lineatan aktuatzea eta ez hirugarrengoa, zeren eta askoz diru gehiago kostatzen zaigu eta ez da hain zuhurra. Gainera kontutan izan behar da, orain inbertsio bat egin dezakegula, baina apirilean aurkitu gaitezke, nahiz eta orain esan dirulaguntza jaso behar dugula, dirulaguntzarik gabe. Bestaldetik, ikuskizun dago paperak jartzen duena beteko den, zeren eta %30a estudioak dioenez, flujotik aldentzen da eta ez dakigu non galtzen den. Askoz zuhurragoa izango litzateke energia planaren lehenengo bi ekintzak burutzea eta hirugarrena aurrerago egitea. Horren ondorioz, abstenitu egingo gara.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 8 (EAJ, H1, PP).



Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua handiagoa denez, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

**9.- ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA.** Iñaki Saldaña Herrero jaunak aurkeztutako errenuntzia.

Alkatea jaunak (BILDU), Iñaki Saldaña jaunari (BILDU) hitza eman dio eta ondorengo adierazi du: “Quiero aprovechar para despedirme de todos. He intentado cumplir mi cargo lo mejor posible, siempre con el corazón en la mano e intentando ayudar a quien estaba necesitado. A veces lo he conseguido y otras no.

Me quiero despedir con una cita de Pablo Coelho que dice: *“siempre hay que saber cuando una etapa llega a su fin, cerrando ciclos, cerrando puertas, terminando capítulos. No importa el nombre que le demos. Lo que importa es dejar en el pasado los momentos de la vida que ya se han acabado.”*

**10.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.** 2012ko abenduaren 17tik 2013ko urtarrilaren 12rarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2012ko abenduaren 17tik 2013ko urtarrilaren 12rarte emandako Ebazpenak.

**11.- ESKAERA ETA GALDERAK.** Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

#### DOLAREAKO PLATAFORMA

Publikoan dauden pertsona batzuek Dolarea plataformakoak bezala aurkezten dira eta lehenik eta behin azkeneko plenoan beraiek izandako jarrerarekiko barkamena eskatu dute, forma aldetik ez zelako zuzena izan.

Jarraian momentu hauetan, plataforma horren egoera azaltzen duen idatzia irakurri dute adieraziz bere garaian Dolarea Hotela kudeatzen duenari abalatu egin ziotela, kreditua lortzeko, honen esanetan bi hilabete barruan Udalaren aldetik dirulaguntza jaso behar zuelako. Laguntza hori inoiz ez zela iritsi diote eta beraiek etxebizitza erosteko kreditua eskatu dutenean banketxeak ukatu egin diela, arrisku parametro barnean daudelako. Horren ondorioa etxebizitza gabe gelditzeko arriskua izateaz gain, plataformako kide bat langabezian gelditzearena dela esan dute. Galdetu dute, nola litekeen Udalak ez kontrolatzea bere ondasun bateko negozioaren finantziazioa. Azkenik eskatu dute Aitor Aldasoro zinegotziak erantzuteko Udalak Dolarea jardura abalatzten duen eta horren inguruan kontrola egiten den.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik zuek egindako galderei erantzuteko Alkateari utziko diot, biok eskutik ari garelako lanean, bai KUTXArekin edo

eman beharreko pausoak eman. Lehenengo galdera, baserriaren abalarena da eta bigarrena ea kontrolik dagoen. Urte eta erdi bi urtera doa gu gobernuan ez gaudela eta nire hitzek baino udal gobernuarenak sinesgarriagoak direla iruditzen zait.”

Alkate jaunak (EAJ): “Nik uste dut Udalak ez duela abalitzen. Harriduraz entzun dut eta lehenengo aldia da hori entzun dudana. Bigarren galderari erantzunez esan, nire ustetan jarraipena egiten dela. Gu behin baino gehiagotan egon gara berarekin bilduta eta bere gestoreak (SAIMA) direnekin. KUTXAekin ere elkarrizketatu gara ez dakit zenbat aldiz, dagoeneko kontua galdu dugu, bai telefonoz eta baita ere Beasainen, Donostia bertaratuz eta ez gu bakarrik baizik eta Aitor Aldasoro ere gurekin izan zen bileran. Jarraipena egiten da eta esan behar dena da, Dolarea kudeatzen duenak Udalari ez diola ezer zor. Zuen arazoa jakin genuenetik gai horri bueltak ematen ari gara eta gai horri ahal den neurrian gure laguntza xumea ematen. Egia dena da, arrazoi ezberdinegatik ez dugula lortu irtenbide batera iristea.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik gai honekin ez dut gehiegi luzatu nahi, gure iritzia edukita ere iruditzen zaigulako, kaltetuak zaretela eta kaltetuak zareten heinean, ez zait iruditzen hemen publikoki jardun behar dugunik bakoitzak gure iritzia ematen eta beharbada gehiago urratzen, eduki dezakezen mina edo inpotentzia. Hori ulertzen da, baina beste gauza bat da Udal edo alderdi bezala egin ditzakegunak. Atzean KUTXA bezalako entitate batek egoteak, ematen du esleipen bat egiten duzunean adjudikazioduna suertatzen denak, bere kontuan, zorrak eta abalak izan dituela. Badirudi, KUTXAk onartutako abalak. Hor badaude akatsak, baina nire ustetan gu gaituzten gaituen akatsak dira. Udalak esleipen bat egin zuen eta beteko ez balitz, eta nik uste dut hortik datorrela Koldoren erantzuna, Udalari bueltatuko litzaioke Dolarea dagoen moduan. Ondarea Udalarena da eta 50 edo 75 urteetara emanda dagoen esleipen hori bertan behera geldituko litzateke. Galdu lukeena kasu honetan, Dolarea kudeatzen duena izango litzateke. Udalak baino herriak galtzen du. Hortik aurrera berak bere langileekin duen lotura eta bere diruak zer eta nola kudeatzen duen, noski ez dela begiratzen.”

Alkate jaunak (BILDU): “Kontuan izan behar da enpresa pribatua dela eta zenbakiak bakoitzak nahi dituenak ekarriko ditu eta paperak erakutsiko digute zenbakiak oso onak edo oso txarrak diren. Nik garai hartakoa ez dakit, baina berak gastu hori asumitu zezakeela justifikatu bazuen..., pentsatzen dut nire ignorantzia eta ezjakintasun guztiarekin..., iruditzen zait esleipen horretarako onartua izango zela, berak diru kantitate bat erakutsi bazuen. Nola erakutsi zuen, hor egon daiteke arazoa, baina hori nori dagokion begiratzea...”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik uste dut bere garaian esleipena legearen barruan egin zela, baina horren ondorioaz nik uste hitz egiteko parada izango dugula, baina gauzak beste hainbat gauza egiten diren moduan legeari

begiratuta eta ahal den txukunena egin dela. Gertatzen dena da, Udalak sustatzaile pribatuen aurrean dituen eskumenak dituela. Nik uste dut momentu hartan Udalaren aldetik, gauzak egin zirela egin behar ziren moduan.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko bederatziak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.